



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



PROTOKOLOA

KORONABIRUS (COVID - 19)

286/2022 Errege Dekretua, apirilaren 19koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisian maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen duena.

Lan Osasuneko Batzordearen erabaki-proposamena

*** Protokolo irekia da eta osasun bilakaeraren eta osasun publikoko agintaritzek xedatutako zuzentzaruen arabera aldatuko da. 2022/04/20.**



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



1. SARRERA

Apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisian maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen duena, argitaratu ondoren, indarrean dagoen protokoloa aldatu behar da.

Errege Dekretu honetan honako eremu hauek ezartzen dira, maskara nahitaezkoa izaten jarraituko dutenak:

A) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan, langileek, bisitariak eta pazienteek osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak baimentzeko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, beren logelan dauden ospitaleratutako pertsonak izan ezik.

B) Zentro soziosanitarioetan, langileak eta bisitariak, eremu partekatuetan daudenean.

C) Aireko, trenbideko edo kable bidezko garraioetan, autobusetan eta bidaiarien garraio publikoetan. 1,5 metroko distantziari eustea ezinezkoa den ontzi eta itsasontzien espazio itxietan, ganbaretan izan ezik, bizikideen nukleoek partekatzen dituztenean.

Beraz, lan-ingurunean, oro har, ez da nahitaezkoa izango maskarak erabiltzea.

Apirilaren 7an egindako lan-osasuneko Batzordean, lanpostuetan maskara nahitaez ez erabiltzea proposatu zen. Hala ere, erakundeak maskaren stocka izango du, eskatzen duten langileen eskura.

2. GOMENDIOAK-BETEBEHARRAK

Hala ere, Errege Dekretu horretan ezartzen denez, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arduradunek, lanpostuaren arriskuen ebaluazioarekin bat etorritik, lantokian edo lantokietako espazio jakin batzuetan ezarri beharreko prebentzio-neurri egokiak zehaztu ahal izango dituzte, maskarak erabiltzea barne, aipatutako ebaluaziotik eratortzen bada.

Beraz, Mankomunitateko lan-osasuneko sailak, Quironeko prebentzio-zerbitzuarekin batera, honako jarraibide eta gomendio hauek ezartzen ditu maskara erabiltzeko:

- Maskara nahitaez erabili beharra mantentzea eremu hauetan:

- 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gordetzea ezinezkoa den lan-bilerak.

- Ibilgailuen kabinak, bi edo hiru langile doazenean, ezin delako mantendu 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia, eta Errege Dekretuak maskara erabiltzea ezinbestekotzat jotzen duen garraio publikoaren eremuaren antzekotasunagatik; izan ere, aireztapena ez dago beti bermatuta, eta, eremu horretan, maskararik ez dagoenean, transmisio-probabilitatea handia izan daiteke.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



-COVID-19arekin* bateragarriak diren sintomak izanez gero, maskara erabili beharko da uneoro.

- Baieztatutako kasuen kontaktu estuek, nahitaez erabili beharko dute maskara.

*COVID-19AREKIN BATERAGARRIAK DIREN SINTOMAK: eztula, disnea, eztarriko, buruko edo torazikoko mina, errinorra, sukarra, beherakoa, usaimena eta gustua galtzea.

Era berean, COVID-19ak eragindako infekzioaren aurrean zaugarritasun handiagoa duten pertsona guztientzat gomendatzen da maskara erabiltzen jarraitzea 1,5 metrotik beherako distantziako pertsonekin kontaktu luzea duen edozein egoeratan.

Eta, oro har, gomendatzen da maskara arduraz erabiltzea pertsonak ibiltzen diren edo denbora luzez egoten diren erabilera publikoko espazio itxietan, hala nola aldageletan.

Aurreko jarraibideak gorabehera, oraingo prebentzio-neurriekin jarraituko da:

- Eskuen higiena gel hidroalkoholikoarekin.
- Lantokiak garbitu eta desinfektatzea.
- Lantokietako aireztapen egokia.

ANTOLAKETA-NEURRIAK:

Hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuak (egunekoak zein gauekoak), lantegi-zerbitzua eta kostaldeko kale-garbiketako zerbitzua berriro hasteko ordutegiak berrartzea proposatzen da. Beraz, kendu egin dira mailakako txandak, Eibarko eta Ermuko kale-garbiketako zerbitzuan izan ezik, horietan, zerbitzuaren antolaketaren arabera, mailakatuta mantentzen baitira.

Eibarren, 2022ko apirilak 20

Lan Osasun saila